



## “Euskal Disney-a sortzera goaz!”

Porrotx | Joxe Mari Agirretxe

Euskara salbu ikusi arte ez du moztuko biboterik.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

### Ez al da makiavelikoa gurasoei dirua kentzeko haurrak liluratzea?

Denok nahi dugu gure seme-alabak eskuza-balak, lagunkoiak, iaioak, gaituak eta jatorrak izatea, baina zer eskaintzen diegu? Materialki hobeto hornitzen ditugulako hobeto hezten ditugula uste dugu?

### Zuk ere lehengo haurrak beste kasta batekoak zirela esan behar didazu?

Lehengo eta gaurko umeak konparatzen ibili beharrean, inork pentsatu al du lehengo eta gaurko gurasoak alderatzea?

### Badakizu, ez dira gauza bera pailazo hezitzailea eta hezitzaile pailazoa...

Hasierako esketx batean arrautzak puskatzen genituen. Primeran pasatzen genuen baina bizitza guztia arrautzak puskatzen pasa behar ote genuen galdetu genion geure buruari. Kontua ez da besteek nola ikusten duten zure lanbidea, zuk nola ikusten duzun baizik.

### Jakingo bazenu zein ederki geratu zaizun.

Pailazo, kale garbitzaile, zerbitzari edo politikari izan, lan guztietatik aportatu daiteke zerbait. Gure lana ez dagoela baloratua? Zein beste lanbidetan pasatzen duzu ordubete eskerrak jasotzen eta muxuak banatzen?

### Pailazo nazionalak zaretelako da hori!

Errealitate ukatu batean bizitzeak txuri-bel-tzean bizitzeko arriskua dakar, eta guk, alaitasun, maitasun eta goxotasunetik koloreak eskaintzen ditugu, ilusioak. Zergatik uste

duzu abenturak bizitzea urteak betetzea baino garrantzitsuagoa dela bizitzan?

### “Ari, ari, ari... Porrotx lehendakari!”.

Jerusalemgo alde zaharrean Spiderman, Bob Esponja eta gainontzekoen irudiak daude. Denak elkarren fotokopiak bagara zer eskainiko diogu elkarri? Euskal Herriak ez al ditu bere erreferenteak behar? Euskal Disney-a sortzera goaz!

### Merchandising-a egitera zoaztela, alegia.

Zer erreferente ageri dira gure haurren pijama eta motxiletan? Zergatik ez du izango euskarak markarik beharrezko produktuetan? Gaiak granoak sortzen dizkit, baina konplexurik gabe heldu behar diogu, marrazoak izan gabe, eskrupulu handiz.

### Herri honetan granoak besteen arrakastak sortzen dituela ahaztuta, ala?

Kritika zentzuzkoak eta eraikitzaileak soilik hartzen ditut aintzat. Gainontzean, onerako bada ere, gutaz hitz egitea da garrantzitsuena, gaizki esaka ariko direla ziurra da eta.

### Bai, bai, ez nizun esan nahi baina Interneten zure izena foro polizialean ageri da beste inon baino gehiago.

Gure garaian negar egin genuen, baina gure lanean sakonduz eta gatazka honen konponbidean gure aportazioak eginez erantzuten saiatu gara. Gure saioetara kolore guztietako jendea dator, baita PPkoa ere, eta eurentzat ere ari gara lanean. ■